

XXV. IGANDEA URTEAN ZEHAR (A)

Otoitza

Jainko Jauna, lege bakar hau eman diguzu:
Zu eta lagunurkoa maitatzea;
iguzu, zure aginduak betez,
betiko bizitzara irits gaitezela.
Zure Seme Jesu Kristo.

I. IRAKURGAIA: Is 55, 6-9

Nire asmoak ez dira zuen asmo.

Isaias Profetaren liburutik

Bila ezazue Jauna, aurki daitekeen artean;
hots egiozue, hurbil dagoen artean.
Gizaki bihurriak utz beza bere bidea,
eta gaiztoak, bere asmoak;
itzul bedi Jaunarengana,
eta errukituko zaio;
gure Jaungoikoarengana,
guztiz errukior baita.
Nire asmoak ez dira zuen asmo;
zuen bideak ez dira nire bideak --dio Jaunak--.
Lurretik zerua bezain urruti daude
nire bideak zuen bideetatik,
nire asmoak zuen asmoetatik.

ERANTZUN SALMOA: Sal 144, 2-3. 8-9. 17-18

R/. Bertan dago Jauna deitzen dutenengandik.

Egun oro zaitut bedeinkatuko,
zure izena menderen mende dut goretsiko.
Handi da Jauna, guztiz goresgarri,
Haren handitasuna ez daiteke igarri. R/.

Kupibera da Jauna eta errukiorra,
berant-haserre eta guztiz onbera.
Ona da Jauna guztientzat,
errukior, Berak egin dituenentzat. R/.

Zuzena da Jauna bere bide guztietan,
zintzoa bere lan guztietan.
Bertan dago Jauna deitzen dutenengandik,
zintzoki deiten duten guztiengandik. R/.

II. IRAKURGAIA: Flp 1, 20c-24. 27a

Niretzat, bizitzea Kristo da.

San Paulo Apostoluak Filipotarrei

Senideok: Kristo goretsia izango da nire gorputzean, bizi banaiz, edota hiltzen banaiz. Niretzat, bizitzea Kristo da; eta hiltzea, irabazia. Baina gorputz honetan biziz, lan ona egin badezaket, ez dakit nik zer aukeratu.

Bi aldetatik nago estu: alde batetik, hiltzea nahi nuke, Kristorekin egoteko; niretzat hau askoz hobe bailitzake. Bestetik, berriz, bizirik gelditzea beharrago iruditzen zait zuentzat.

Gauza guztien gainetik, bizi zaitezte Kristoren Ebanjelioari dagokion bezala.

EBANJELIOA: Mt 20, 1-16a

Aleluia: Ikus Ap Eg 16, 14b

R/. Aleluia.

V/. Ireki iezaguzu, Jauna, gure bihotza,
gogoz onar ditzagun zure Semearen hitzak. R/.

*Bekaizti izan behar al duzu zuk,
ni eskuzabala naizelako?*

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik

Aldi hartan, Jesusek parabola hau esan zien bere ikasleei: «Zeruetako erreinua, goizean goiz bere mahastirako langile bila atera zen etxeko jaunaren antzekoa da. Eguneko denario batean hizketatu ondoren, bere mahastira bidali zituen.

Atera zen berriro goizerdi aldera, eta beste batzuk ikusi zituen herriko enparantzan egonean zeudela, eta esan zien: "Zoazte zuek ere nire mahastira, eta emango dizuet bidezko dena". Eta haiek ere joan ziren. Atera zen berriz ere eguerdi inguruan eta arratsalde erdian, eta gauza bera egin zuen.

Arratsalde beranduan atera zenean, beste batzuk aurkitu zituen, oraindik geldi zeudela. Eta esan zien: "Zertan zaudete hemen, egun osoan geldi?" Haiek esan zioten: "Ez baikaitu inork hartu lanerako". Etxeko jaunak orduan: "Zoazte zuek ere nire mahastira".

Iluntzean mahasti jabeak honela esan zion bere morroiburuari: "Deitu langileei, eta emaiozu bakoitzari bere saria, azkenekoetatik hasi eta aurrenekoetaraino". Etorri ziren, bada, arratsalde berandukoak, eta denario bana hartu zuten. Lehenengoak etorri zirenean, gehiago hartuko zutela uste zuten; baina haiek ere denario bana hartu zuten.

Eta marmarrean hasi ziren etxeko jaunaren kontra, esanez: "Azken horiek ordu bat besterik ez dute lan egin, eta gurekin berdindu dituzu, egun guztiko nekea eta beroa eramane ditugunokin". Baina hark erantzun zion haietako bati: "Adiskide, ez dizut bidegabekeriarik egin. Ez al ginen eguneko denario batean hizketatu? Har ezazu zeurea duzuna, eta zoaz. Azkeneko honi ere, ordea, zuri adina eman nahi diot. Ez al zait niri zilegi, nahi dudana egitea nire gauzetan? Edo bekaizti izan behar al duzu zuk, ni eskuzabala naizelako?"

Horrela, bada, azkenekoak lehenengo izango dira, eta lehenengoak azkeneko».

Oparigaien gainekoa

Bihotz onez hartu, Jauna, zeure herriaren eskaintza:
fede beroz aitortzen duena
sakramentuen bidez iritsi dezan.
Jesu Kristo.

Jaunartze ondorengoa

Indar itzazu, Jauna, zeure graziaz
sakramentu hauek ospatu dituztenak,
misterio hauetan eta bizitza guztian
zure salbamenaren fruituak jaso ditzaten.
Jesu Kristo.